Ebazpena, Justizia Administrazioko zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita hutsik dauden lanpostuen eta borondatezko berrantolaketa-prozesuan parte hartzera deitutako pertsonen zerrenda, Justizia Administrazioko kidego orokorretako funtzionarioak Gasteizko barruti judizialeko Bulego Judizialeko, udalerriko Justizia-Bulegoetako nahiz horien elkarteetako eta Erregistro Zibilaren bulego orokorreko lanpostu berrietara egokitzeko prozesuaren baitan

Justizia Administrazioko zuzendariaren 2026ko maiatzaren 26ko Ebazpenaren bidez onartu ziren Eibarko, Donostiako, Vitoria-Gasteizko eta Barakaldoko barruti judizialetako funtzionarioak adskribatzeko irizpideak eta egokitze-prozesuaren garapena ere bai.

Ebazpen horren 6. artikuluan ezartzen denez, Justizia Administrazioko Zuzendaritzak borondatezko berrantolaketa-prozesuan parte hartzera deitutakoen zerrenda argitaratuko du, bai eta eskainiko diren plaza hutsak ere, EIZU justiziako langileen atarian eta Intranet justizia.eus-en.

Artikulu horrek aurreikusten duenez, borondatezko berrantolaketan, prozesu honetan beren borondatez parte hartzen duten langileek aurreko faseetan hutsik geratutako lanpostu guztiak eskuratu ahal izango dituzte.

Esleipenean, lehentasun-ordena honi jarraituko zaio:

1. Lehentasuna. Zerbitzu Erkide Orokorreko Betearazpen Atalean behin betiko destinoa duten langileak.
2. Lehentasuna. Aurreko faseetan destinoa lortzerik izan ez duten langileak.
    a. Berariazko lehiaketan parte hartu bai, baina esleipendun izan ez diren langileak.
    b. Borondatezko berrespenaren multzokoak izaterik bazuten ere, eskatutako baldintzak ez betetzeagatik berrespen-fasean lanposturik eskaini ez zaien langileak.
3. Lehentasuna. Udalerrian behin betiko destinoa duten gainerako langileak.

Horiek horrela, honako hau,

EBATZI DUT

1. artikulua.- Gasteizko barruti judizialeko egokitze-prozesuaren barruan langileak borondatez berrantolatzeko prozesuan parte hartzera deitutako karrerako funtzionarioen zerrenda argitaratzea (I. Eranskina).

Era berean, Gasteizko barruti judizialeko egokitze-prozesuaren barruan langileak borondatez berrantolatzeko prozesuan eskaintzen diren plazen zerrenda argitaratu da (II. Eranskina).

2. artikulua.- Funtzionarioek 2026ko azaroaren 20tik 24ra, biak barne, egin beharko dute plaza-eskaera, jarraian adierazten den estekan:

https://www.euskadi.eus/langile-hornikuntza/be-gasteiz/web01-a2justic/eu/

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

Fase honetan parte hartzeko eskaerarik aurkezten ez duten langileak nahitaezko berresleipenera igaroko dira.

3. artikulua.- Karrerako funtzionarioek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte lehen adierazitako epean eta estekan.

4. artikulua.- Ebazpen hau izapide-egintza da, ez du gaiaren mamiari buruzko erabakirik hartzen, eta ez dio amaiera ematen prozedurari.

Ondorioz, ezin da horren aurkako errekurtsorik jarri, Administrazio publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA